Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Joxe Mari Zulaika Aizpurua Paskualsoro

Tolosa, Gipuzkoa (1938)



Aurkibidea

Biografia



Zarauzko Urteta auzoko Paskualsoro baserrian jaioa. Lurrez Zarautz egiten bazen ere, baserria gertuago zegoen Aiatik, eta hala joaten ziren Paskualsorotik Aiako Urdaneta auzora mezetara. 10 senidetan gazteena, Joxe Marik oso gaztetatik izan zituen herri-kirolak gustuko. Idi-apustuetan aritu ondoren, segari ekin zion, eta gerora, harria jasotzen ere aritu izan da. Gizon txikia bezain indartsua, gazteei erakusten ere jardun izan da. Bedaioko (Tolosa) Pakita Balerdirekin ezkondu zen.

Zintak

TOL-026

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Data**: 2010-06-17
- **Iraupena**: 63 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Oruesagasti, Ainitze

Pasarteak

1. Jaiotetxea, Paskualsoro baserria

- **Erref**: TOL-026/002
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:00:40. **Bukatu**: 00:02:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Paskualsoro baserria Aiako partean dago. Errepiderik ez zen garaian, oinez ordubeteko bidea zuten Zarautzera. Igandetan, Urdanetara joaten ziren mezara.

2. Aurreneko idi-apustua

- **Erref**: TOL-026/004
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:03:13. **Bukatu**: 00:04:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:
Herri-kiroletako zaletasuna nondik datorkion kontatzen du. 18 urterekin hasi zen idi-apustuak jokatzen: alde bakoitzak bi mila pezeta jokatu zituen. Soldadutza ondorenean, sega-apustua jokatu zuen Iturriotzen.

Transkripzioa
- Noiz hasi ziñan zu herri-kiroletan afizionatzen o nola jun zan zure ibilbidia?
- Herri-kiroletan aurren-aurrena, ba, hemezortzi urtekin, ba, idi-apustuba jokatzen.
- Idi-apustuk?
- Bai, harriyai heldu ta atzetikan zeatzen, laguntzen.Ta geo, ba, handikan, soldaduska in ta geo soldaduska ondorenen sega-apustua jokatu nun Iturriotzen.
- Egon, e. Galdetuko dizut idi-probako idi-apustuk ze prueba klase izaten zian ordun?
- Ordun´e oaintxe bezelaxe, ba, jokuak alkarri; geo premio kanpeonatuk baten ta besten. Oain baiño´re gehio, gaiñea, askoz´e izaten zien ordun. Haitan.
- Zenbat diru jokatzen zan orduan?
- Ba! Ordun´e diruba... Badakizu, oaingo konparaziyokin, ba... Ordun nik goguan det aurreneko joku hartan, ba, alde bakoitzetikan biña milla pezeta. Ta bazan ordun diruba. Hala esaten zan behintzat.
- Konparazion esango zenduke ordun gehio zala oain jokatzen dana baiño?
- Askotan bai. Hua... zeatik eze apostu hola amistoso bateako, nik ze esango dizut? Ordun mutil batek lau hillabeten irabazten zun diruba zan hoi. Orduan hillian bostehun pezeta irabazten zun mutilla zan, ba, “ño! horrek sueldo earral zakak!” esaten zan.

3. Idi-apustua: Gipuzkoako eta Bizkaiko plazak

- **Erref**: TOL-026/005
- **Iraupena**: 0:00:44. **Hasi**: 00:04:53. **Bukatu**: 00:05:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:
Idi-apustuen nondik norakoak kontatzen ditu. Garailea plaza gehien egiten zituena izaten zen. Gipuzkoan, plazak 22 metrokoak izan ohi dira. Bizkaian, berriz, luzeagoak; 28-29 metro ingurukoak. Bizkaiko plazak, ordea, errazagoak dira.

Transkripzioa
- Ze prueba in behar izaten zan? Han, plazan, bakoitza bere idi-pariakin, ta ze in behar izaten zan?
- Haruntza ta honuntza, ba, leku jakiña egoten zan, ta jokua nola itten zan. Batzutan etten zan igualen, bestetan eitten zan, berriz, zerbait bentaja batei o bestiai emanda. Baiño geo zeiñek plazaik gehiena eitten zittun, hua izaten zan garaille.

- Eta zenbat metroko plazak izaten zian?
- Hemen, jenealen, ba, hogeita bi metrokok die hemen. Bizkaian luzeauak dia Bizkaian. Bizkaian hogeta zortzi ta beatzi ta...Oain, plazak hemengoak baiño errezoxogok dia.
- Lurraatik beraatik?

4. Lehengo eta oraingo idien entrenamenduak

- **Erref**: TOL-026/006
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:05:37. **Bukatu**: 00:06:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Lehengo eta oraingo idi-apustuak alderatzen ditu. Lehen idiak baserriko lanetarako erabiltzen ziren: goldean, egurretan, simaurketan... eta hori zen haien entrenamendua. Animalia, pertsona bezala, lanean zailduta egoten zen. Gaur egun, berriz, probetarako izaten dira soilik, eta pneumatikoekin entrenatzen dituzte.

5. Idi pare bakarra

- **Erref**: TOL-026/007
- **Iraupena**: 0:00:41. **Hasi**: 00:06:35. **Bukatu**: 00:07:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Etxean, idi pare bakarra zuten. Eta baserriko lanerako eta apustuetarako erabiltzen zituzten. Ez zen ohikoa bi idi pare edukitzea; gehienez, hiru idi izaten ziren, txandatu ahal izateko.

6. Idientzat, "jan sekoa"

- **Erref**: TOL-026/008
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:07:16. **Bukatu**: 00:08:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Apusturako idiei "jan sekoa" eman beha izaten zaie: baba eta belar iharra.

7. Idien entrenamenduak

- **Erref**: TOL-026/009
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:08:27. **Bukatu**: 00:09:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Idiak nola entrenatzen zituen kontatzen du. Baserriko lana izan ohi zen entrenamendua. Hala ere, lera karga jarrita ibili ohi ziren; korrika ere eginarazten zitzaien.

8. Idiak elegante plazarako

- **Erref**: TOL-026/010
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:09:38. **Bukatu**: 00:11:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:
Idiak elegante preparatzen ziren plazarako: kopetekoak, uztarriak... Kopeteko onenak lodiak izaten ziren; idien adar-ondoetan minek ez emateko. Kopetekoak ganadu-larruz egindako hedeekin lotzen zitzaizkien idiei. Kopetekoek, apaingarri gisa, borla batzuk izaten zituzten; idien begi parean geratzen ziren. Borlak urdin-gorri kolorekoak izan ohi ziren.

9. Soldadutzatik bueltan, aurreneko sega-apustua

- **Erref**: TOL-026/012
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:13:14. **Bukatu**: 00:15:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:
Soldadutzatik bueltatu zenean, aurreneko sega-apustua jokatu zuen Iturriotzen; bi orduan zeinek ebaki kilo gehiago. Belarra pisatzeko, eskuarearekin belarra juntatu, besada egin eta, soka erdian zuela, sorta egiten zen. Gorabeherak izaten ziren pisuarekin.

10. Apusturako, 48 ontzako sega

- **Erref**: TOL-026/013
- **Iraupena**: 0:03:08. **Hasi**: 00:15:01. **Bukatu**: 00:18:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:
Segei buruz hitz egiten du. Belar klasearen arabera, sega bat edo bestea erabiltzen da. Patrizio Etxeberriaren segak famatzen ditu. Apusturako, sega handia erabiltzen zen; 48 ontzakoa.

11. Sega-pikatzea eta sega-jartzailea

- **Erref**: TOL-026/014
- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 00:18:09. **Bukatu**: 00:20:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Sega-pikatzeko tresnak aipatzen ditu: mailua, ingudea, arraitza... Mailuak tenplaketaz gogorturiko altzairuzko punta izaten zuen. Tresna horiek errentariarenean, feriatan edota sega-jartzailearen etxean erosten ziren. Herri eta auzo guztietan izaten zen sega-jartzailea; Urdanetako Izeta baserriko sega-jartzaileak aipatzen ditu.

12. Sega-pikatzea eta zorroztea

- **Erref**: TOL-026/015
- **Iraupena**: 0:03:02. **Hasi**: 00:20:40. **Bukatu**: 00:23:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:
Sega eserita pikatu behar da: ahalik eta meheen, berdinen, utzi behar da; gero, arraitzarekin zorrozteko. Sega zorroztea garrantzizkoa da; zorrozten ez bada kamustu egiten da, nahiz eta sega pikatu.

13. Sega-potoa eta arraitza

- **Erref**: TOL-026/016
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:23:42. **Bukatu**: 00:25:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:
Segan aritzeko tresnak: sega, sega-potoa, arraitza... Egurrezko sega-potoak izaten ziren, eta gerrian lotuta eramaten ziren. Arraitzari ura, ozpina edota sagardoa botatzen zitzaion; harria laztu eta gehiago heldu zezan.

14. Bi orduko sega-apustua

- **Erref**: TOL-026/017
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:25:36. **Bukatu**: 00:27:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:
Sega-apustuen nondik norakoak kontatzen ditu. Aurrena jokatu zuen sega-apustuan, alde bakoitzak, 50.000 pezeta jokatu zituen. Bi orduko apustua izan zen; ohikoena ordubete edo ordu eta erdikoa izatea da.

15. Segalariaren lantaldea

- **Erref**: TOL-026/018
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:27:07. **Bukatu**: 00:28:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:
Segalariaren lantaldea: zorroztailea, non moztu irakasten zuena, bost-sei biltzaile eta bi pisatzaile. Sega beste batek zorroztu eta eskura emanda aritzen ziren.

16. "Erakustailea" eta segalaria

- **Erref**: TOL-026/019
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:28:17. **Bukatu**: 00:30:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:
"Erakustailea" esaten zitzaion sega-apustuetan belarra nondik eta nola moztu aholkatzen zuena. "Erakustailearen" eta segalariaren arteko konfiantzaz, aholkuez... hitz egiten du.

17. Sega-apustuetako epaileak

- **Erref**: TOL-026/020
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:30:03. **Bukatu**: 00:31:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:
Sega-apustuan epaileak izaten ziren. Epaileen eginbeharrak eta arauak aipatzen ditu.

18. Belarra moztea

- **Erref**: TOL-026/021
- **Iraupena**: 0:00:38. **Hasi**: 00:31:51. **Bukatu**: 00:32:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:
Belarra mozteko modua; ez zen berdin mozten apustuetan eta baserrian. Baserrian ahalik eta txukunen mozten saiatzen zen: apustuan, berriz, "narratxago"; berdin izaten zen tarteetan belarra luze uztea.

19. Sega-apustua: burdinak belar-sailean

- **Erref**: TOL-026/022
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 00:32:29. **Bukatu**: 00:35:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:
Belarra ahal zen beherenetik moztu behar izaten zen. Bi apustutan, burdinak sartu zizkioten belar-sailean kaltea eragiteko asmoz. Horregatik, desanimatu eta utzi egin zion sega-apustuei.

20. Segan egiteko belardi bila

- **Erref**: TOL-026/023
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:35:11. **Bukatu**: 00:36:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Segako entrenamenduak non egiten zituen: Asteasu, Larraul, Zizurkil eta Berastegin. Terrenoak ikusi, eta belarra gustatuz gero, baserritarrari belarra mozten uzteko baimena eskatzen zitzaion. Baserritarrek gustura hartzen zuten eskaintza.

21. Asteasura, Tapiaren segan egiten ikastera

- **Erref**: TOL-026/024
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:36:25. **Bukatu**: 00:38:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Asteasun 20 urte egin zituen Eleuterio Tapia segalariaren etxean; segan egiten ikastera joan eta etxeko bezala geratu zen. Familia artekoa zuen segarako lantaldea.

22. Eleuterio Tapia segalaria

- **Erref**: TOL-026/025
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:38:12. **Bukatu**: 00:39:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Asteasu segalari herria zen. Eleuterio Tapia segalari oso ona zen. Tapiak hiru sega-apustu eta Euskadiko Sega Txapelketa bat jokatu zituen: denak irabazi zituen. Tapiarekin hartu-emanetan nola hasi zen kontatzen du.

23. Segarako zaletasuna

- **Erref**: TOL-026/026
- **Iraupena**: 0:00:48. **Hasi**: 00:39:36. **Bukatu**: 00:40:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:
Segarako zaletasuna nondik datorkion kontatzen du.

24. "Segalariak penatu egin behar du gogotik"

- **Erref**: TOL-026/027
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 00:40:24. **Bukatu**: 00:40:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:
Segalari ona izateko zer ezaugarri eduki behar diren aipatzen du: "penatzen beldurrik gogo gabea" izan behar da. Sega-apustuak udan izaten dira, eta han gogotik penatu behar izaten dela dio.

25. Hanka-hutsik segan

- **Erref**: TOL-026/029
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:41:30. **Bukatu**: 00:43:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Segan egiteko zer arropa erabiltzen zuen kontatzen du. Kamiseta eta galtza luzeak, belaun parera arte doblatuak. Hanka-hutsik egiten zuen segan, eta hanka azpiak ebakiz zailduta izaten zituen.

26. Segari utzi eta harriari eutsi

- **Erref**: TOL-026/030
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:43:08. **Bukatu**: 00:44:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:
Sega-apustuak zergatik utzi zituen kontatzen du: apustua irabazi arren, ez zuen marka eutsi. Penatuta, sega utzi eta harri-jasotzen hasi zen.

27. Harri-jasotzen hasi

- **Erref**: TOL-026/031
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:44:14. **Bukatu**: 00:45:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Segan egiteari utzi eta harri-jasotzen hasi zen. Ofizio honetan ere, Tapia izan zuen maisu. Hasierak nola izan ziren kontatzen du.

28. Harri-jasotzeko harriak

- **Erref**: TOL-026/032
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:45:34. **Bukatu**: 00:47:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Bergaran zegoen harrigilea. Lehengo harriek eskuzuloak izaten zituzten bakarrik. 100 kiloko harriarekin hasi, eta 200 kilo bitarteko harriak igo zituen. Aimar Irigoien harri-jasotzaile errezildarra aipatzen du.

29. Harri-jasotzeko entrenamenduak

- **Erref**: TOL-026/034
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:47:54. **Bukatu**: 00:49:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:
Tapiarekin egiten zituen entrenamenduak. Sozioek, apustuetan dirua jartzen

zutenek, entrenamenduak ikusi nahi izaten zituzten. Harria kaxa batera botatzen zuten: kaxa hondarrez betetzen zuten, eta gainetik manta bat josten zitzaion.

30. Harri-jasotzailearen gerrikoa

- **Erref**: TOL-026/035
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 00:49:08. **Bukatu**: 00:50:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Harri-jasotzailearen janzkera. Gerriko beltza erabiltzen zuen. Harria handia jaso behar zenean, gerrikoa estu lotzea komeni izaten zen. Harri txikiarekin, jaso-aldi asko egiteko, lasaiago hobe.

31. Apustuak eta harri-jasotzaile ezagunak

- **Erref**: TOL-026/037
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:50:54. **Bukatu**: 00:51:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Apustuak nolakoak izaten ziren azaltzen du. Hamar minutuko hiru txanda izaten ziren, zeinek altxaldi gehiago eman. Endañeta, Ostolaza, Goenatxo eta Zelai harri-jasotzaileak nabarmentzen ditu.

32. Altuera txikia, harri handia

- **Erref**: TOL-026/038
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:51:54. **Bukatu**: 00:54:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:
Harri handiarekin hobeto moldatzen zen. Baldintza fisikoak aipatzen ditu; altuera txikia eta beso motzak izatea ez zuen aldeko. Altuera txikiko harri-jasotzailea izanagatik, harridura sortzen zuen.

33. Apustularien elikadura

- **Erref**: TOL-026/041
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:55:07. **Bukatu**: 00:56:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:
Gerra ondoreneko giroa du hizpide. Ez zegon diru eta janaririk, eta apustulariak ahal zuen moduan prestatu behar izaten zuen. Elikadurari buruz hitz egiten du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-07

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com